

ANGEL IRIGARAY IRIGARAY (G.B.)
(1899-3-1/1983-11-28)

Antonio María Labayen

Istillu ta batere zaratarik gabe itzali zitzaigun duela sei illabete adiskide min, mediku jakintzu ta euskeltzale suhar izan genduen lagun maitagarria. Buruko gaitzez larri ikutua arkitzen zen, gizarajoa azkenekoz ikusi genduelarik. Ezagueraz argi zegoen oraindik, baiñan ezin mintzatuz eritasun beldurgarri pean zapaldurik, joa, itzegiteko gauza ez zela nahigabez antz eman genion. Beti osasuntsu, alai ta irritsu ezagutu genduenak goibel eta begiratu illuna egin zigun. Egia da aspaldi ez genduela elkar ikusten. Donostia'tik berriz Tolosa'ra bizi izatera nere jaiorerrira itzuli nintzan ezker ez giñan maiz elkartzen. Horregatikzirrara bizia nabari nuen nere barruan, Aingeru adiskidebegikoa ikusirik etxeratu nintzalarik. Beti umoretsu izan zena mutu ta makal agertzea, isil ta eroria bihotza tristuraz bete zidan. Laister adiskide kutuna galduko genduela sinisturik. Zoritxarrez ala gerzan 1983 urtea buka aurretik. Ez zuen urte hartako emaitza ezagutu. Gabon kanta pozgarriak entzun baño lehenago eriotz otoitz ta dolu-min erreaguak zuznedu genizkion Jainkoa'ri Aingeru'ren animaren alde, lur hau utzitakoan zeruan gerta zedun. Alabitz!

Hil zen egun hartan loaren orde z burura zetozkidan gaztetan Irigaraytarrok nola ezagutu nituen gora-beherak... 50 urteko kontu zaharrak dira. Iñaute egun batez beste tolosar adiskide bat eta biok Naparroa'ko Donibane Garatzi'runtz abiatu gintzaizun; trenez eta aldiz oñez. Arnegi, Luzaide'tik gora bidea elurrez estalia zegoen. Nekez, bederen Orreaga ta Auritze'ra iritxi giñan. Han eman ziguten laguntza ta ezagutu genituen Irigaray andereñoak. On Juan bertako nagusi ta aren alaba ta Angel'en lengusu ziranak. Arrezkero Irigaray famili osoa adiskide izan zaigu. Nola ez? lendarbizi On Permin «Larreko» ospetsuaren itzala liluragarri zitzaigun. Ordurako mediku ta euskal idazle onenetako genduen. Sendakintzan ezik «Larreko»'k betetzen zituen euskera jatorrez gure aldizkari ta irakurgai gehienak, lanbide beitan eten gabe jardunez. Eta oraindik baliagarriagoa dena etxe, aide ta sendiarteko guztiek euskaltasunean ederki ezi zituen. Esan dezagun «Larreko» jauna Bidasoa'ko Beran eta gero Baztan'go Iruritan mediku langintzan jardun zuela. Gero merezi mendu kariaz Iruñe'ko eritegi nagusian zuzendari nagusi izatera iritxirik. Seme zaharrena zuen «Aingeru» bide beretik bultzat nahi izan zuen. Honek Lekarotz'ko ikastetxean egin zuen Batxillerra; ta ondoren Bartzelona'ko Unibersitatean bukatu mediku karrera osoa ikaskizun mailla bikañez ta

sariak irabaziaz. Bartzelona'n euskaldun ikasleekin biltzen zen, giputz eta bizkaitarrekin batik bat eta euskera gutxi zekitenoi maisu izan zitzairen. Justo Garate bergaratar gallena lagun haundienetako izan zuen. Aingeru Iruñe'n bizi izan zen bitartean Arturo Campion jakintsuaren eta «*Revista Euskara*» partaidekin har-emanetz ez zuen utsegin. Julio Urkixo jaunari begiramen benetakoa zion; eta elkarrekin Europa zehar ibillaldi atsegiña egiña zuen beti euskeraren alde. Ez zuen gutxi ikasi aleman jakintza bereganatuz.

1936'n zorigaiztoko gerratea piztu zelarik Aingeru'k Iruñe'n ziharduen mediku lanbidea utzi beharra izan zuen eta Gipuzkoa'runtz Hondarrabi ta Donostia'ra etorri zen emen lan leku berezia lorturik. Ongi ezkonduarik Errosa Imaz etxeakoandre arduratsuekin tamalez gazterik alargundu zen lau seme-alaba utzi zizkiolarik: Xabier, Juan Mikel, Joxe-Angel ta Maite, aitona ta aitaren ildotik jarrai araziz. Larogeita iru bete ta gero langille zuhur eta gartsua izan zena, osasun onekoa, gaitz zital batek burua menderatu zion eta uste gabe hil zitzaigun oraindik euskeraren alde egin zezakean lana amaitu gabe. Ez zuen ordea bere bizitza alperrik gal.

«Larreko» aita izan zuenak aña ez ba du euskal literatura ornitu, haren bidetik ibilliz izen ohoragarri baten jabe izatea iritxi zen. Ezin zaio hori uka. Horregatik zuzen irabazi zuen «Euskaltzain» osoaren izena. Zer nolako liburu ta gaiak landu zituen J. Bilbao'k egindako bibliografia ugaritik atera ditzakegu. Ehun ta gehiago izango dira Angel Irigaray-Irigaray ta Apat-Etxebarne napar ez izenez estaltzen dituanak. Nafarroa'ko herri ta lurraldeetan euskerak izan zuen edadura ta gaurko egoera murrizta iñork baño obeto ezagutzen zituan. «Diario de Navarra» egunkarian ez zuen beñere idatz lanez gabeturik laga. «*Geografía lingüística*», «*Noticias históricas del euskera en Navarra*», «*Folklore basconí*», «*Nuevos testimonios de la lengua vasca en Navarra*», «*Prosistas navarros*» abar eta abar... Aingeru'ren beste kritika lanak RIEV, EGAN, «*Príncipe de Viana*», «*Gure Herria*», «*Euskal-Esnalea*», «*Euzkadi*» ta beste aldizkari askoetan azken berrogei urteotan agertuak dira. Beraz langille emankorra izan genduen; zentzu ta ezaguera zuzenekoa. Gramatika ta ortografia eztabaidetan beti erdi bidearen zale zen eta ez zuen maite euskaltzaleok gai hoietan sakabanaturik eta asarre ikustea. Hori bai, beti herrikoi ta izkuntza arruntaren aldekoa; politikari baño euskeltzale sutsuago, burrukaren etsai ta pakearen aldekoa. Honela arkitu du Jainkoak azken orduan dei egin diolarik; eta adiskide ta lagun giñanoi erakutsi ederra eman digu. Jarrai dezagun haren eredu.

Hillobi antzinean orogarriztat atsekabez amaitu gura dut haren seme bihotzeko Joxe-Angel semeak, euskeltzale sutsu ta olerkari goitarrak opa dizkion hitz-neurtu unkigarri hauek:

«Tristura haundi bat
daukat bihotzaren barnean,
ahalge naizelakotz
ez nezaioke nehoi erran,
ama lurrari diot kontatuko
betirako muxuz azken atsedenean.»